

noaia

Urriaren 24an abiatuko da hezkuntzako parte hartze prozesua

Ke arteko egunekin amaitzeko gogoia

Igande honetan, Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

Euskal Jaia Zubietan

URRIAK 16 asteartea, 19.00etan SUTEGIN (Sarrera doan):

“EURI LEHORRA” dokumentala

Zenbait bitartekarik Hegoafrika eta Irlanda Iparraldeko bake prozesuetan egindako lana aurkezten digu TV3 telebista kataluniarrek eta Baleukok egindako dokumentalak. Euskal Herriaz duten iritzia azaltzen digute pertsona horiek.

Besteak beste, John Hume, William de Klerk, Alec Reid, Brian Currin, Jonathan Powell, Mohammed Baba, Juan Jose Ibarretxe, Rofi Etxebarria, eta Paul Riesen hitzak jaso dituzte dokumentalean.



Zuzendaria: **Gorka Esplau**



nocua



ZURE BURUA MAKILATZEN IKASI NAHI ZENUKE?

Makilaje ikastaro bat prestatu dizugu.
Bertan, udazken-negu hontako
tendentziak eta koloreak erabiliz.

Deitu eta eskatu zure txanda!

DOHAINIK!!

 **INTZA**
WELLA ILEAPAINDEGIA
PROFESSIONALS

**Kalitatezko produktuekin
estilismoa eta estetika lantzen ditugu**

Eguerditan irekia! Nagusia 8, 943 36 36 41

Albiste iruditzen

Mikel Laboa plazaren itxura berria

Oraindik ez dituzte amaitu, baina jada ikus daiteke azken hilabeteotako lanek zer modutan itxuraldatu duten Mikel Laboa plaza.

Lehendik autoen joan etorrientzat itxia zegoen ingurune hau oinezkoentzako gunean bihurtzea da Usurbilgo Udalaren asmoa. Lur eta kaleko argiteri berriak prest ditu jada. Bertan dauden oztupo arkitektonikoak kentzeko lanek aurrera jarraitzen dute, irisgarritasuna bermatu nahi baita.

Erabateko normaltasuna ez da itzuli Mikel Laboa plazara, baina lanek jada ez dituzte lehen bezain beste oztopatzeko, taberna edo saltokietarako joan etorriak.



Laster amaituko dira konponketa lanak.

Laburrean

Emakumeentzako pala ikastaroa

Urriaren 12an amaituko da ikastaroan izena emateko epea eta Oiardo kiroldogian egin behar da. Urriari hasi eta maiatzera arte luzatuko da ikastaroa. Saiok astero burutuko dira, ordu eta erdiz. Interesdunek 50 euro ordaindu beharko dituzte. Kiroldegian egongo da ordutegiak kontsultatzeko aukera.

Ez da beharrezkoa izango inoiz palan arituzana. Baldintza bakarra, gutxienez 16 urte beteak izatea da.

Produktuen etiketak euskalduntzeko kanpaina

Euskal Herria Esnea kooperatibari euskara hutsez etiketatzeagatik Eusko Jaurlaritzak ireki dion prozedura zigortzailearen aurrean, Euskal Herriko produktuak euskaraz etiketatzeko kanpaina abiatu dute norbanako batzuek. Manifestu bat ere argitaratu dute, euskarazetikatu.com web orriari irakur daitekeena. Euskaraz bizi eta kontsumitzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Euskaldunak ekimenarekin bat egitera deitzen dituzte. UEMAK atxikimendua adierazi du jada.

Urriaren 30ean hasiko da erretzeari uzteko ikastaroa

Ikastaroa urriaren 30ean hasi eta abenduaren 18an amaituko da. Saiok astean behin izango dira, aste-artero, 18:30-19:45 artean, Artzabalen.

Ikastaroa, Minbiziaren Aurkako Elkarteko psikologo Maider Sierrak bideratuko du. Taldea gutxienez zortzi kidez osatuko da, asko jota 14 kidez. Ikastaroan izen ematea irekia egongo da, urriaren 26ra arte; Gizarte Zerbitzuen bulegoan edota 943 371 110 telefono zenbakira deituta. Ikastaroa doakoa izango da.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaua.com /// www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Iriskal preboak



Iriskal Herria?

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Arantxa Zulaika, publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa:

Aloña Esnaola,

Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregei ikastola.


Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Nerea Zinkunegi

Egiaren jabeak

Hilabete ere ez da izango berria irratian entzun nuela, Australiako Eliza Katolikoak, ere, barkamena eskatu du publikoki urteetan zehar bertako sotanadun dozenaka elizgizon "bekatuan" aritzeagatik.

Berria ez da hain berria, aspalditik ari baitira antzekoak zabalitzen; AEBeko Los Angelesen, Hollywooden, Ipar Ameriketako Eliza Katolikoa izan zen barkamen arrosario hau hasi zuena 2007an, bi urte beranduago Irlandako Eliza Katolikoak egin behar

izan zuen agerpen publiko bera 70 urtetan zehar milaka sexu abusu, fisiko eta psikiko burutu zituzten elizgizonak tartean zituela azaldu zuenean, Eliza Katoliko Britainiarrak "ausartak" izendatu zituen beren "bekatua" aitortutako elizgizon haiek (*jtócate el báculo*), 2010ean Alemanianko Eliza Katolikoak, 2011n Herbeheretakoak... aurten, joan den irailean, Eliza Katoliko australiarra izan da barkamen eske agertu dena.

Venedicto XVI.ak ere zerbaiti usaia hartua izango zion 2005ean

bere kargua hartu eta Eliza Katolikoaren barruan dagoen "zikinkeriarekin" (berak esana, amen) bukatuko zuela adierazi zuenean. Baina urrez jantzitako Aita Santuak zikinkeria bildu eta dagoen tokian bota beharrean urteak pasa ditu Vatikanoko atea ireki eta zikinkeria hara eta hona zabalduz, simaurra moduan, Afrikara, batik bat, bidaliz kiratsa zerien elizgizonak, epailearen aurretik pasatzea saihestuz.

Bada Interneten, nola ez, web orri bat non munduko mapa batetan elizgizonen burututako

abusuen salaketak zein herrialdetan izan diren irudikatzen duen. Eta ze kuriozoso, aizu! Europan eta Ertameriketan ageri dira soilik, Afrikan bat bera ere ez.

Ongiaren eta gaizkiaren irudiak eta erretaulak dituzte katedral erraldoietan urrezko zenbait elizgizonen eta mendeetan zehar egiaren jabe direla aldarrikatu dute homilia eta mezetan, latinez zein kantu gregorianoetan.

Amen, zuek hor ta ni hemen.

Oharra: ojo! Denak ez dira berdinak.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | **Nerea Zinkunegi** | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre

Ika-Mika

Hamaikabatek Bruño ahizpak absolbitzen dituen epaiaren aurrean bere poza adierazten du

4 urte pasatxo dira Bruño familiarentzat ametsgaizto hau hasi zenetik. 4 urte, aurretik jasandako ETA-ren estortsioa eta presioa kontuan hartzen ez bada. 4 urte, tartean Audientzia Nazionalak urte bat eta hiru hilabetera kondenatu zituenetik. 4 urte beraz aurretik jasandako estortsio bidegabe horri Garzon epaileak atxilotu, inkomunikatu eta epaitzeko bidea gehitu zionetik.

Lehenago ere adierazi izan diogu

Bruño familiari gure elkartasuna, eta oraingo honetan ere, Auzitegi Gorenak absolbitu berri dituenen, ametsgaizto hau bukatu denean gure poza adierazi nahi diegu.

Prozesu hau guztia absurdoa izan dela uste dugu, eta zentzugabetasun horretan Bruño familiak adierazitako sendotasuna eta koherentzia nabarmendu nahi ditugu. Andres Bruñok "Carta de un padre destrizado" idatzi zuen hartan lezio bat

eman zuten, garbi azalduz 30 urte luzetarako ETA-ren biktima izan ondoren orain espainiar justiziaren biktima zela.

Lezio bat eman zuen bai, batez ere egun haietan atxilotuen askatasuna hitz txikietan eskatu baina estortsio egileei ezer eskatzen ez zieten haiei.

Eskutiz haren bukaeran estorsioa jasaten duten guztiei elkartasuna adierazteaz gainera bere alabentzat askatasuna eskatzen zen.

Usurbilgo Hamaikabaten ustez, garai hobek bizi ditugun honetan, ETA-ren estortsioa eta mehatxua amaitu diren honetan, Andresek bezala beste hainbat euskal herritarrek mehatxu eta estortsioaren aurrean erakutsitako tinkotasunak ekarri du egoera honetan egotea, ETA bere jardueraren armatua amaitutzat ematera behartuz.

Usurbilgo Hamaikabat (H1)

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE JON ELORZA
IGELTSEKITA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Urriaren 24an abiatuko da hezkuntzako parte hartze prozesua

Hastear da etorkizuneko hezkuntza eredu bateratua adosteko Udalak udazken honetarako iragarria zuen parte hartze prozesua. Lehen bilkura, urriaren 24an burutuko da. Udalak herritarrekin batera jorratu nahi du ekitear den bide hau. Parte hartzera deitzen dute, “hezkuntza guztion ardura baita”.

Urriaren 24an hasi eta otsailaren 6ra arte luzatuko den parte hartze prozesuaren baitan, zazpi bilkura burutuko dira. Bilera guztiak irekiak izango dira, nahi duen orok parte hartu ahal izango du. “0-16 hezkuntza proiektua zehazteko usurbildarrok etorkizunerako nahi dugun hezkuntza-eredu bateratua adostea eta hori gauzatzeko bideak jorratzea izango da” helburu nagusia. Gai honen inguruko



Bilerak Potxoenean egingo dira.

diagnosia, irtenbidea aurkitzeko aukeren lanketa eta bertan erabakitakoa gauzatzeko egin beharrekoa izango ditu hizpide nagusi.

HERRITARREN IRITZIA

Prozesuak herritarrak izango ditu oinarri. Udaletik aurreratu dutenez, “hezkuntza denon eskubidea izanik, guztion ar-

dura denez, herritarren iritzia ezinbestekoa izango da usurbildarrok nahi dugun hezkuntza eredu adosteko”. Herritarrak parte hartzera animatzen dituzte. Prozesu honen inguruko zehaztasunak jasotzen dituen esku-orri bat prestatu du Udalak. Egun gutxi barru, etxeetan jasoko duzue. Hemen, zenbait zehaztasun:

BILERAK, IREKIAK

“Etorkizunerako nahi dugun hezkuntza-eredu bateratua adostea da helburua”

EGUTEGIA

- **Bileren ordua:** 18:30.
- **Bilera lekua:** Potxoenea.
- **Bileren iraupena:** 2 ordu.
- **Egunak:** urriak 24, azaroak 7, azaroak 21, abenduak 5, abenduak 19, urtarrilak 23 eta otsailak 6.

Bileren egituraketa:

- 1-Egoeraren diagnostiko partekatua: 2 bilera.
- 2- Identifikatutako interes edo beharrei irtenbidea aurkitzeko aukera ezberdinen lanketa: 3 bilera.
- 3- Erabakitakoa martxan jartzeko eman beharreko pausoak zehaztu eta landu: 2 bilera.

“Euri lehorra” dokumentalaren proiektzioa urriaren 16an izango da

Urriko kultur agendan urriaren 17rako iragarria zegoen arren, azken orduko aldaketak tarteko, egun bete aurreratu du NOAUA! Kultur Elkar-teak, “Euri lehorra” dokumentalaren proiektzioa. Honenbestez, hilaren 16an asteartean eskainiko da, aurreikusia zegoen ordu eta lekuan; 19:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Proiektziarako sarrera doakoa izango da. Dokumentala, bere zuzendari Gorka Espiauk aurkeztuko du ekitaldi hasieran.

Hegoafrika eta Irlanda Ipa-



Brian Currin agertzen da dokumentalean.

rraldeko bake prozesuetan hainbat bitarterik eginiko lana jasotzen du “Euri lehorra” dokumentalak.

NOAUA! Kultur Elkar-teak antolaturiko proiektzioa, Aieteko Konferentziaren lehen urteurrenean eskainiko da.

EH Bilduk hainbat ekitaldi deitu ditu

Hauteskundeen harira, hauek antolatu dituen ekitaldiak:

Urriak 12 ostirala

18:00-19:00 Sinadura bilketa frontoian.
19:00 Argazki jendetsua sinadurekin frontoian.
20:00 Pintxo-potea doan frontoian.

Urriak 13 larunbata

17:30 Ekitaldi Nazionala Barakaldoko BECen. Autobusean apuntatzeko: Txiriboga, Aitzaga taberna, Aitzaga elkarte.

Urriak 19 ostirala

19:00 Kanpaina amaierako ekitaldi frontoian.

Ke arteko egunekin amaitz

Aire kalitateari loturiko arazoak gertuko jarraipena izaten segituko du

Atxegalden bereziki, eta baita Kaxko inguruan ere, bizilagunek sumatzen duten usai txar eta keak, kezka, haserre eta kexuak eragiten jarraitzen du. Hau guztia agerian geratu zen beste behin, joan den ostiralean Itaya Gazte Asanbladak N-634 errepide bazterrean antolatu zuen hileko lehen ostiraleko elkarretaratzean. “Ucin-ek gure osasunarekin jolasten du” lemapean burutu zen, 20:00etan hasi eta ordu erdi inguruz luzatu zen mobilizazioa.

Ordu eta erdi lehenago, aipatu kontzentrazioan bildu ziren hainbat herritarrek, airearen kalitateari lotuta dauden arazo-
ei buruz hitz egiteko Udalak Potxoenean deituriko bilera informatiboan parte hartu zuten. Ingurumen alorreko udal zinegotzi Jose Maria Rivadeneyrak, gai honen inguruan ekaina amaieran Atxegalden bertan burutu zen bilkuratik gaur arte izan diren nobedadeen berri eman zuen.

Bertaratu zirenei, asteburu



Aurreko ostiralean elkarretaratzea egin zuten Atxegalden.

honetan, baina gehienbat datorren astetik aurrera adi egotea eskatu zien. Ucin zenbait hobekuntza lan egitekotan da urriaren 12tik 14ra. Hala jakinarazi zion aipatu enpresako gerenteak Udalari, bi aldeek joan den aste hasieran burutu zuten bileran. Hitzordu horrek eman zuena azaldu zuen ingurumen zinegotziak Potxoenean. Iraga-

nean, konpontzeke jarraitzen duen arazo hau bideratzeko saiakerak egin izan dituela adierazi omen zuen enpresako gerenteak eta “leporatzen zaien sentsibilitate falta ez dela” hala. Enpresatik gertuen bizi diren herrita-

Asteburu honetan, urriaren 12tik 14ra, Ucin zenbait hobekuntza-lan egitekotan da

rek, Ucinetik airera isurtzen ikusi ohi duten ke zuria ez ateratzeko hainbat plan egin dituztela diote Ucinetik. Udalak aldiz, arazoaren iturria ke hau ez, Rivadeneyraren esanetan, “labetik ateratzen den ke beltza” dela gogorarazi zioten Ucin enpresako ordezkariari. Karga sistemarekin lotzen du Udalak usain txarren arazoa eta aipatu sistema zorrotzago kontrolatzea nahi du.

FILTRO ALDAKETA, ASTEBURUAN

Halere, Ucinetik aurreikusitako dituen planekin aurrera jarraitu asmo du. Berez 2013ko ekainean aldatu beharko lituzkeen filtroak, asteburu honetan aldatuko ditu, Ucinetik Udalari esan zaionez, aireratzen den “kea hobeto xurga dezaten”.

Modu honetan, pauso bat

Arazoa konpontzea, lehentasuna Udalarentzat

Udalak berealdetik, arazo hau konpontzen ahalegintzeko beste hitzordu bat du, Ucin enpresak hobekuntza lanak egin asmo dituen asteburu honen atarian; ostegun honetan hain zuzen, Eusko Jaurlaritzarekin biltzekoa da Gasteizen. Enpresetako ikuskaritza “paper aktiboagoa” izatea lortu nahi du Udalak.

Asteburu honen ostean, Ucinetik egin asmo dituen hobekuntza lanek eman dezaketena baloratu eta oro har, arazo honen jarraipena egite aldera bestalde, biltzekoak dira berriz, Usurbilgo Udalari eta Ucin. Hilabete barru edo izango da.

Eta gero, ordura arte gai honek eman duenaren gaineko informa-

zioa eskaintzeko, herritarrekin beste bilera bat deitzeko asmo du Udalak. “Ingurumen arloan, Udalarentzat lehen arazoa da hau”, adierazi zuen Potxoenean Rivadeneyrak. Arazo hau konpontzea dela euren helburu nagusia, baina horretarako, herritarren laguntza beharko dutela gaineratu zuen.

zako gogoa



2013ko ekainean aldatu beharreko filtroak asteburu honetan aldatuko ditu Ucinak.

Uztailean,
neurri
zuzentzaileak
hartzea eskatu
zion Udalak Ucin
enpresari

eman du aipatu enpresak. Bai behintzat, aurretik, ekainaren 14an Udalak, Ucinak eta Eusko Jaurlaritzak izandako bilkura-rekin alderatzen badugu. Orduko hartan, ke eta usain txarren arazo honi irtenbide bat bilatzeko, "Ucinen aldetik konpromiso argirik" ez zela egon adierazi zuen Rivadeneyrak Potxoenean. Udalak uztailean neurri zuzentzaileak hartzea ere formalki eskatu zion aipatu enpresari, horretarako "abuztua une onena dela" esanez. Baina

Udalak "erantzun formalki" ez du jaso, joan den asteko bilera burutu den arte.

Ekainean bertan gainera, Udalak herritarren kexuak jaso zituen. Baita gerora ere, joan den irailaren 13an azkena. Horiek aipatu moduan, Udalak formalki erregistratuak dituen herritarren kexuak. Baina ez dira bakarrak. Potxoeneako bilera joandako bizilagunek agerian utzi zuten, ke eta usain txarren inguruko kexu gehiago dago. Herritarrek beraz, Udalarri jakinarazi baino gehiagotan arnastu behar izan dute usain txarra. Horregatik, ekaineko bilera adierazi bezala, oraingotan ere, Rivadeneyrak usain txar edo kerik sumatuz gero, Udale-

ko Ingurumen Sailarekin harremanetan jarri eta kexuak aurkeztera deitzen ditu herritarrek.

AGENDA

URRIAK 11

■ Usurbilgo Udala Eusko Jaurlaritzarekin bilduko da Gas-teizen.

URRIAK 12-14

■ Ucin hobekuntza lanak egiteko da.

AZAROAN

■ UCIN eta Udalaren bilera berria. Dena delakoarekin, bilera informatiboa gero herritarrekin.

"Indarrak metatzen jarraitzea besterik ez zaigu geratzen"

Hilabete igaro da, Itaya Gazte Asanbladak kutsaduren aurkako lehen elkarretaratzea deitu zuenetik. Azken asteotako balorazioa burutu zuten urriaren 5ean Atxegalden burutu zen mobilizazioan: "Duela hilabete ekin genion ITAYA gazte asanbladakook usurbildarrak aspaldi hontan izan dugun arazo larri honi publikoki salatzera. Handik hona, UCIN enpresakosindikatuekin harremanetan jar-tzen saiatu gara. Aditzera eman digutenez, sindikatuak indar oso gutxi du enpresan baina oraindik ez gara beraiekin elkartu. Udalarekin ere harremanetan jarri gara kontzentrazioetara udal ordezkari-ren bat azaltzeko gonbita luzatuz. Ez dute bertaratu nahi izan UCIN enpresarekin komunikazioa berreskuratu nahian dabiltzalako, hemen egoteak elkarriketak eten ditzakeen beldur direlako. Eskaera honen harira antolatu du gaur Udalak "Aire kalitateari buruzko bilera" Potxoenean. Hasi ginenetik hilabete pasa da, hilabetean gauzak ez dira aldatu noski, baina abiapuntua ezarririk indarrak metatzen jarraitzea besterik ez zaigu geratzen. Denborak argi utziko du herritar asko sentitzen direla kaltetuak, baita suminduta ere. Eta pozoia aieratzeko orain arte eduki duten lasaitasunak amaiera izango du! Ez baitiegu utziko horrela jarrai dezaten! Gora Usurbil Osasuntsua! "

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L

teilatua eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

III. Antzerkizale Eguna

USURBILEN OSPATUKO DA, AZAROAREN 3AN

Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek (EHAZE) urtero antolatzen duen Antzerkizale Egunaren hirugarren edizioa, aurtengoa, Usurbilen ospatuko da azaroaren 3an. Egun osoko egitaraua prestatu dute, Txerriki taldekoekin, NOAUA! Kultur Elkartearen parte hartzearekin edota Udalaren laguntzarekin batera. Ekimena, iragan astean aurkeztu zuten Potxoenean.

Azaroaren 3ko ekimenarekin, baita udazkenearako iragarri dituzten beste hainbat hitzordurekin, sare bat sortu nahi dute; AntzerkiZale Sarea. Antzerki zaletuen, antzerki taldeen eta udalerrien arteko sare bat, antzerkigintza bultzatuko duena, zaletuentzat han eta hemen alor honetako eskaintza egoteko aukera emango duena. "Herriz-herri, eskualdez-eskualde, antzerki zaletasunaren aldeko dinamika sustatuz, adibidez, antzezlana maiztasun gehiagorekin programatu ahal izango dira", berri eman dute antolatzaileek. EHAZE eta Txerriki antzerki taldeko kide Alex Tellok prentsurrekoan iragarri zueenez gainera, 2013an, urte osoko egitaraua bat osatzeko erronka dute. Guztia elkarlanean, "sarea denon artean osatuko dugu".



Potxoenean egin zen Antzerki Egunaren aurkezpena.

ASTEROKO ESKAINTZA

Urrian jada, astero astero antzezlana bat eskainiko da inguruko udalerrietan. Azkena, Usurbilen, hilaren 26an, 20:00etan Sutegin; "Izan Bedi Emakumea" Azkoitiko Koldarrak taldekoen eskutik.

Eta astebete beranduago, azaroaren 3an, Usurbilen baita, III. Antzerkizale Eguna ospatuko da. Antzerkizale Egunari buruzko zehaztasun gehiagoren berri, datozen astekarrietan emango dugu. Herritarrak ekitaldiotan parte hartzera deitzen dituzte.

"Errekamari", txotxongilo ikuskizuna Santuenean

Santuenea Kultur Elkartek haurrei zuzenduriko txotxongilo emanaldia antolatu du urriaren 19rako, arratsaldeko 17:30etatik aurrera. "Errekamari, Euskal Herriko azken lamia" izeneko ekitaldia hain zuzen. Emanaldia amaitu ondoren, txokolatea bizkotxoekin dastatzeko aukera egongo da.

Ipuin kontalariak Udal Liburutegian

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Udal Liburutegian aritzekoa da asteazken honetan. 18:00etatik aurrera. Urriaren 23an asteartea, toki eta ordu berean, Pello Añorga ipuin kontalaria arituko da (HH4ko ikasleentzat).



Pello Añorga

Udarregi Sariketaren azken finalerdia jokatu da ostiral honetan, San Praixku jaien baitan

Bota Punttubak antolatutako Udarregi Sariketaren aurtengo edizioko bigarren finalerdia ostiral honetan, urriaren 12an ospatuko da, Aginagako San Praixku jaien baitan. Lehen finalerdian, beteranoak lehiatu ziren. Oraingoan, gazteen txanda izango da.

Iban Urdangarin, Unai Gaztelumendi, Ander Lizarralde, Amaia Iturriotz, Nekane Zinkunegi eta Miren Artetxerena. Haietatik hiru sailkatuko dira, azaroaren 17an ospatuko den finalerako. Bi, epaimahaia hautatuko ditu, hirugarrena bigarren finalerdi honetara bertarazten diren ikus-entzuleek erabaki beharko dute. Finalerdi hau, urriaren 12an ospatuko da, gaueko 21:00etan hasita, Aginagako Eliza Zaharrean. Bertso-afaria izango da. Txartelak salgai daude, Txiribogan eta Txiristran, baita Aginagako Arrate Egoitzako tabernan ere, 15 eurotan.



Lehen finalerdian beteranoak aritu ziren kantuan. Telleria, Zeberio eta Murua sailkatu ziren finalerako. Ostiral honetan, gazteak izango dira finalerako txartel bila arituko direnak.

San Praixku jaiak, azkenetan

Larunbatean, edo luzatu nahi dutenentzat igande goizaldean amaituko dira aurtengo San Praixkuak. Aurretik halere, bi jai egun ospatzeko daude. Bertso afaria, edota herri antzerkia iragarri ditu Jai Batzordeak ostiral eta larunbat honetako ekitaldien artean. Gainerako hitzorduek, hemen:

Urriak 12 ostirala

■ **21:00** Bertso afaria Eliza Zaharrea: II. Udarregi Sariketa (finalerdia Bota Puntubaren laguntzarekin): Iban Urdangarin, Unai Gaztelumendi, Ander Lizarralde, Amaia Iturriotz, Nekane Zinkunegi, Miren Artetxe.

Ondoren, Fan&Go-rekin dantzaldi eder-rra. Denok dantzaraaaaa!!!

Urriak 13 larunbata

■ **16:00** XXXII. Mus Txapelketa Herrikoia (izen ematea 15.30ean).

■ **18:00** Gorriti show.



Giroa primerakoa izan zen San Praixku eguneko hamaiketakoan.

■ **20:00** Herri antzerkia herriko ludotek-kan. Barre egin nahi baduzue....

■ **00:00** Abiba DJ.

■ **Jarraian**, DJ Larra Eliza Zaharrea

eguna argitu arte.

Oharra: azaldu urriak 14 igandea 17.00etan dena lehen bezala txukun uzten laguntzera!!

Sarreraren salmenta



bastero
KULTURGUNA



kutxa

SERVIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



ANDOAINO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



bastero
KULTURGUNA

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

"Gure bide lagunak"



DEJABU PANPIN LABORATEGIA
URRIAK 19, Ostirala, 21.30

"The hot wok"



METALEZKO MUSIKA TRESNEN KONTZERTUA
URRIAK 20, Larunbata, 20.00

"Ali Baba eta 40 lapurrak"



BOROBIL ANTZERKI TALDEA
URRIAK 21, Igandea, 17.00

"Arte-an"



DANTZAZ KONPAINIA
URRIAK 26, Ostirala, 21.30

Zortzi hautes-mahai ipiniko dira hauteskunde egunean

Aurreko deialdietan bezala, bozka emateko zortzi mahai kokatuko dira urriaren 21ean. Bost gune desberdinetan: Udarregi Ikastolan, Santueneko Auzo Elkarte, Aginagako Herri Ikastetxean, Haur Eskolan eta Zubietako Lanbide Eskolan. Adi nork bere errolda datuei, horien arabera, hautes-mahai batean edo bestean bozkatu beharko baitu urriaren 21ean. Botoa emateko ordutegia ohikoa izango da; 9:00-20:00.

Urriaren 21ean bozketa goizeko 9:00etan hasi eta arratsaldeko 20:00etan bukatuko da, etengabeko ordutegian. Hautesleek hauteskunde erroldaren arabera dagokien mahaietan soilik izango dute zuzenean bozkatzeko aukera. Usurbilen, zortzi izango dira jarriko diren mahaiak.

Bozka ematera hurbiltzen denak, mahaiburuan denari izena eta abizena esan beharko dizkio eta titularraren argazkia duen agiria erakutsi (NANA, pasaporte edo gidabaimena) eta bozketa kartazala eman.

URRIAK 21 IGANDEA, HAUTES-MAHAIK

Lekua - Helbidea	Barrutia	Atala	Mahaia	Letrak
Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea 11	1	1	A	A-I
Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea 11	1	1	B	J-Z
Auzo Elkarte. Santuenea auzoa 12	1	2	A	A-Z
Aginaga Herri Eskola. Erriberako kalea 7	1	2	B	A-Z
Haur Eskola. Kalezar auzoa	1	3	A	A-K
Haur Eskola. Kalezar auzoa	1	3	B	L-Z
Lanbide Eskola. Zubietako auzoa, 9	1	3	C	A-Z
Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea, 11	1	4	U	A-Z

Aginagan, Zubietan, Kalezarren, Santuenean eta kaxkoan jarriko dira bozka emateko hautes-mahaiak.

POSTA BIDEZKO BOZKA

Urriaren 21ean Usurbilen bozkatu ezin dutenek, aldezturik, urriaren 11 baino lehen (ostegun honetan hain zuzen) aur-

kez dezakete posta bidez botoa emateko eskabidea.

Horretarako, posta bulego batera jo behar da.

Legebiltzarrerako hauteskunde emaitzak Usurbilen

2009		2005		2001	
EAJ-PNV	895	EAJ-PNV/ EA	1.282	EAJ-PNV/ EA	1.642
D3M *	761	EHAK	1.087	EH	1.109
PSE-EE PSOE	477	PSE-EE PSOE	378	PSE-EE PSOE	382
ARALAR	373	ARALAR	206		
EA	132	PP	180	PP	320
PP	126	EB-IU	113	EB-IU	101
EB-IU	82				
Errolda	4.669	Errolda	4.663	Errolda	4.460
Hautesleak	2.921	Hautesleak	3.287	Hautesleak	3.583
Abstentzioa	1.748	Abstentzioa	1.376	Abstentzioa	877

* D3M legez kanpo utzi zuen Alderdien Legeak.

13 hautagaitza zerrenda Gipuzkoatik, Eusko Legebiltzar berria osatzeko

Urriaren 21ean ospatuko diren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako 13 hautagai zerrenda aurkeztu dira Gipuzkoan. Euskal Herriko Agintaritzako Aldizkariak (EHAA) kaleratu zituen irailan, hurrenkera honetan.

Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

01. Joseba Egibar Artola
02. Miren Bakartxo Tejeria Otermin
03. Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola
04. Alejandro Etxeberria Aranburu
05. Maria Isabel Vaquero Montero
06. Kerman Orbegozo Uribe
07. Ane Urkiola Alustiza
08. Mirengarbiñe Mendizabal
09. Luis Jesus Uribe-Etxebarria
10. Felix Maria Urkola Iriarte
11. M. Mercedes Garmendia Bereciartu
12. Jokin Bildarratz Sorron
13. Iñaki Joseba Patirki Aguirre
14. Maria Eugenia Iparragirre Bemposta
15. Eva Juez Garmendia
16. Xabier Insausti Sarasola
17. Carlos Ormazabal Urbizu
18. Nahikari Otermin Soroa
19. Imanol Lasa Ceberio
20. Olatz Peon Ormazabal
21. Miren Itziar Agirre Berriotxoa
22. Aitor Mikel Urrutia Oianguren
23. Ainhoa Galdos Olazar
24. Alfredo Etxeberria Murua
25. Javier Maria Iridoy Olaizola

Euskal Herria Bildu (EH Bildu)

01. Javier Ignacio Isasi Balanzategui
02. Pello Urizar Karetxe
03. Maria Angeles Beitialarrangoitia
04. Rebeca Ubera Aranceta
05. Lur Etxeberria Iradi
06. Juan Jose Agirrezabala Mantxola
07. Iñaki Lazarobaster Badiola
08. Unai Urruzuno Urresti
09. Diana Carolina Urrea Herrera
10. Miren Lorea Agirre Dorransoro
11. Mainer Otamendi Tolosa
12. Jose Luis Otamendi Etxabe
13. Ainhoa Beloia Olaziregi
14. Manu Egaña Chopitea
15. Miren Aurkene Astibia Legorburu
16. Iñaki Ostolaza Esnal
17. Josu Aztiria Urtaran
18. M. Milagros Mendizabal Mendizabal
19. Aitor Lizarralde Aiastui
20. Eider Mitxelena Iribarren
21. Sergio San Jose Cosme
22. Diego Barrado Sanchez
23. Maria Idoia Echeberria Lete
24. Maria Del Mar Iciar Celaya Gonzalez
25. Joseba Osoro Iturbe



Gipuzkoan, 13 izan dira aurkeztu diren zerrendak.

PSE-EE

01. Iñaki Arriola Lopez
02. Susana Corcuera Leunda
03. Maria Blanca Roncal Azanza
04. Maria Arrate Gallastegui Oyarzabal
05. Bixen Ichaso Gonzalez
06. Jesus Maria Zaballos De Llanos
07. Goizane Alvarez Irijoa
08. Fernando Fariñas Lozano
09. Maider Lainez Lazcoz
10. Maria Rodriguez Rodriguez
11. Jose Angel Rodriguez Medina
12. Oscar Valbuena Pascual
13. Patxi Elola Azpeitia
14. Patricia Borinaga Albeniz
15. Eneko Andueza Lorenzo
16. Mikel Duran Gonzalo
17. Ana Priede Merchan
18. Ana Telleria Echeverria
19. Isaac Palencia Caballero
20. Maria Jesus Egido Moreno
21. Aranzazu Gonzalez San Vicente
22. Julio Fidel Juan Astudillo Rodrigo
23. Denis Itxaso Gonzalez
24. Maria Arritokieta Maraño Basarte
25. Jesus Maria Eguiguren Imaz

Partido Popular (PP)

01. Maria Aranzazu Quiroga Cia
02. Francisco De Borja Semper Pascual
03. Manuel Michelena Iguaran
04. David Vicente Hernandez San Luis
05. Maria Asuncion Guerra Alonso
06. Maria Teresa Cazenave Zarandona
07. Juan Carlos Cano Aristoy
08. Vanesa Velez De Pablos
09. Julia Tercero Isasi
10. Maria Carmen Larrañaga Maiztegui

Ezker Anitza (IU-LV)

01. Jon Hernández Hidalgo.
02. M. Aranzazu Gonzalez Garcia.
03. Juan Luis Merino Sanabria.

Ezker Batua – Berdeak (EB-B)

01. Alba Gutierrez Gomez.
02. Isabel Lopez Aulestia.
03. Jose Maria Garcia Garcia.

Union Progreso Y Democracia (UPYD)

01. Nicolas De Miguel Velez.
02. Maria Inmaculada De La Riva Garriga.
03. Patricia Alcalá Marin.

Equo Berdeak – Euskal Ekologistak

01. Monica Monteagudo Casas / 02. Xabier Iglesias Juarez / 03. Maria Del Pilar Garcia Rivas.

PACMA / Attkk

01. Olatz Madrazo Rada / 02. Oihana Lerchundi Egurbide / 03. Angeles Zomeño Sanchez.

Escaños En Blanco – Aulki Zuriak (EB)

01. Felipe Benicio Retamal Vazquez / 02. Araceli Hermosa Crespo / 03. Ekaitz Diaz Ruiz.

Unificacion Comunista De España (UCE)

01. Juan Salvador Castañeda / 02. Sergio Larredonda González / 03. Jorge Garcia Alegria.

Bidezko Mundurantz (PUM + J)

01. Txaro Perez Del Pecho / 02. David Martin Sanchez / 03. Nera Lopez Ben.

Partido Humanista (PH)

01. Joaquin Salvador Rodriguez / 02. Pilar Fernandez Arau / 03. Nagore Alonso Bilbao.

Soluzioak zure esku



Urriak 19, 19:00 Usurbilgo frontoian

EKITALDI POLITIKOA

BOZKATU  **ehbildu**

“Oria ibaia Usurbilen”

ANDATZAKO II. ARGAZKI LEHIAKETARAKO GAIA IZANGO DA

Udalerria alderik alde zeharkatzen duen erriyoa hizpide nagusi hartuta antolatu du Andatza Mendizale Elkartek, II. Argazki Lehiaketa; "Oria ibaia Usurbilen" izenburupean hain zuzen. 2012ko edizio honetan parte hartzera animatzen denak beraz, Oria ibai inguruko argazkiak atera beharko ditu.

"Usurbil inguruan ba ditugu hainbat erreka eta ibai. Oria ibaia nagusi. Uraren korrontearen gainetik hiru zubi eder ibaiaren bi ertzak lotzen. Aliriko zubia Zubietan, Zorrotzeko zubia Santuenean, eta Altzonazkoa Txokoalden. Uraren korronteari jarraituz bideratuko dugu 2012ko argazki lehiaketa. Ziur gaude askok aprobetxatu duzuela zuen argazki-kamera hartzeko eta argazki batzuk Oria ibaian ateratzeko, eta zer esango duzue, argazki horietako batengatik saritxoren bat irabazteko aukera izanez gero...?", berri eman dute antolakuntzatik.

AZAROAREN 15ERA ARTE

Txapelketan parte hartu asmo dutenentzat oharra; argazkiak azaroaren 15eko arratsaldeko 20:00ak baino lehen aurkeztuko beharko dira.



Mendi Astean emango da aditzera lehiaketako irabazlearen izena.

Lehiaketari buruzko gainerako oinarriak andatza.com web orrian daude ikusgai. Irabazlearen berri, Mendi Astearen baita emango da ezagutzera; azaroaren 30ean.

ARTIKUTZARA, HILAREN 21EAN

Urriaren 21ean bestalde, Artikutzara joateko irteera antolatu dute Andatza Mendizale Elkartek. Goizeko 7:30etan jarri dute biltzeko hitzordua, Oiardo Kiroldegian. Joan etorria autoz egingo da. Mendi irteerari buruzko zehaztasun gehiago, euren web orrian.

Kinto bazkariaren hilabetea izango da hau

Igande honetan, hilaren 14an, Antxeta jatetxean bazkaritarako elkartuko dira **1946. urtean jaio zirenak**. Izena eman nahi duenak, Laurok liburu dendara jo edota 943 363 448 telefonora deitu.

Urriaren 20an **1955eko kintakoak** bilduko dira, Antxeta jatetxean baita. Telefono zenbaki hauetako batera deituta apuntatu daiteke bat: 943 362 226 (Ana) edo 943 366 879 (Jose Miguel).

Urriaren 27an, egun pasa antolatu dute **1962an jaio zirenentzat**. 50 urte betetzen dituzte aurten, eta urriko azken larunbatean goizeko 11:30etan finkatu dute biltzeko hitzordua Txapelkun tabernan. Bazkalaria argazkia aterako dute, eta 14:30etan Olarrondoko mahai bueltan bilduko dira jan eta edatera. Bazkalostean dantzaldia izango dute. Bertaratzeko asmoa dutenek, urriaren 13a baino lehen apuntatu behar dute. 80 euroko ordainketa egin behar dute, nor bere izen abizenak adieraziz, Kutxako kontu korronte zenbaki honetan: 2101 0040 60 0013053772.

80 urtekoei gorazarre

1932. urtean jaiotako bazkideak omen du zituen igandean Gure Pakea Elkartek. 2012an zehar 80 urte bete dituztenak alegia. Mezetan elkartu ziren lehenik, eta gero, Atxega jatetxean ospatu zuten bazkari baten bueltan. Tarte bat hartu zuten omen duek, ondoko erretratu honetan ateratzeko. Ez da nolana marka, urtemuga honetara heltzea. Zorionak guztiei!



URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak@urdaintzi.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Energia aurrezteko hainbat gomendio Oiardoko auditoretzan

Inergetika enpresak Oiardo Kiroldegirako prestatu duen auditoretza energetikoa aurkeztu zuten joan den urriaren 1ean. Egungo instalakuntzen egoera baloratzetik abiatuta, ekonomia eta energia alorretan aipatu guneak eragiten dituen gastuak aurrezteko, epe motz, ertain eta luzera begira gauzatu daitekeen proposamen sorta mahai gaineratu zuten. Bilerara, Kirol Patronatuko eta gobernu taldeko zenbait ordezkari bertaratu ziren.

Proposamenetako bat bi igerilekuetarako egin dute; itxita dauden denbora tartean, manta termiko batekin estaltzea proposatzen du Inergetika enpresak. Hartara, ura lurruntzea saihestu, eta ur tenperatura mantenduko litzateke, eta ondorioz, auditoretza egin dutenek ohartarazten dutenez, “galera termikoak gutxitzen dira”. Bigarren proposamena; igerilekuko giro kondizioak kudeatzeko deshumifikadore berri bat jartzea.

Gune bereko argiztapena aldatzea ere egoki ikusten dute auditoretza burutu dutenek. Kontsumoa murrizteko kanpotik instalakuntzetara sartzen den argia baliatu eta horren arabera, barruko argiteria erregulatzea aholkatzen dute. Baita tatamian, gimnasioan eta eskubaloi partidak jokatzeko diren aretoan ere.

ARGITERIA AUTOMATIKOA

Hau ez da, alor honetarako Inergetika enpresakoek Kirol Patronatuari planteatu dion erronka bakarra. Noizbehinka erabiltzen diren Kiroldegiko guneetan, argiak beren kasa piztu eta itzaltzeko automatizatzea proposatzen dute. Horretarako mugimendu detektagailuak jartzea aholkatzen dute, Oiardoko aldagela edota komunetan.

Honez gain, “T8 ohizko erregeleta



Gastuak aurrezteko, hainbat proposamen jaso dira auditoretzan.

fluoreszenteak T5 luminaria fluoreszente elektronikoengatik aldatzea proposatzen da kiroldegiko solairu ezberdinetan”. Baita igerilekuan ere, zarata, distira eta keinarik gabe funtziona dezaten. Proposamenekin, besteak beste, lanparen bizi-tza luzatu eta argiztatze denbora murriztuko litzateke, energetikoki eta ekonomikoki aurreztuz noski. Baina ez hori bakarrik. Instalakuntza elektrikoaren energia erreaktiboaren kontsumoa kontrolatzeko, kondentsadore batera bat jartzea aholkatzen dute Inergetikakoek.

AIREZTAPENA ERREGULATZEA

Argi instalakuntzaz gain, aireztapen sistema berritzea, hortxe beste proposamena. Berritu ez den kiroldegiko zatian kokatuak dauden “aldagelen airea berotzeko ordulariz kontrolatutako erresistentzia elektrikoaren bitartez egiten da. Sistema honi erregulazio sistema ezartzea proposatzen da, kontsigna tenperatura bat ezarri. Horrela behar ez denean erresistentziak itzaliz”. Bestalde, kontrolatzaile ezberdinak bateratzen dituen erregulazio sistema berria jartzea ere proposatzen du Inergetikak, “horrela, bero produkzioa, aldagelen klimatizazioa, igerilekuan ura eta giroa, UBS eta eguzki indar sistema kontrolatuko dira”.

Aginagako Pala Txapelketako irabazleak

Aginagako pala txapelketako finaleran, Aitziber Aranguren eta Dolo Errasti nagusitu ziren emakumezkoen artean. Eta Xabier Errasti eta Jon Olaizola, gizonezkoetan.

Emakumeen arteko finala:

Aitziber Aranguren - Dolo Errasti 25
Zalao Leoz - Rosa Uribe 12

Gizonezkoen arteko finala:

Xabier Errasti - Jon Olaizola 25
Enrike Huizi - Imanol Esnaola 11



Argazkian, pala txapelketako sarituak.

Errasti-Altuna, esku txapelketako garaileak

Errasti-Altuna 22 Intsausti-Mitxelena 21 (Agiña) (Berrobi) (Añorga) (Arantza)

Futbol partidak

Kadeteak; urriak13 larunbata, 11:00
Jubenilak; urriak 13 larunbata, 15:30

Eskubaloi partidak

2012/10/13, larunbata:

Kadete mutilak. 17.30h

Usurbil K.E. - La Salle Legazpi

Senior neskek. 19.00h

Atez Ate Usurbil - Pulpo K.E.

2012/10/14, igandea:

Kadete neskek. 11.00h

Usurbil K.E. - Urnietako K.E.

Endika Abril txapelketa

Igande honetan finala Zubietan, 11:00etan: Ustaritze-Donibane Loitzune.

 **Errazkin S.L.**
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Buruntzaldea ezagutzen

Igande honetan ospatuko da Buruntzaldeko V. Ibilbideen Eguna, oinez ala bizikletan

Kirrol zaletasuna sustatu eta inguruko paisai edo bide zidorrak ezagutzea bultzatze aldera, Buruntzaldeko V. Ibilbideen Eguna ospatuko da igandean, urriaren 14an. Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek antolatutako ekimenak berrikuntza nagusi bat dakar edizio honetan; ibilbidetako bat, Lasarte-Oria eta Usurbil lotzen dituena, Aginagaraino luzatuko da. Kontrol guneetako bat ere bertan jarriko dute, Mapil ondoan, eta amaieran jarri ohi duten autobus zerbitzuko lehen geltokia ere Aginagan kokatuko da, Ezpaldiko gasolindegian.

Goizez 9:00etan hasi eta 14:00ak arte antolakuntzak, eta ekimeneko laguntzaile diren Andatza Mendi Elkarteak, Euskalduna Mendizale Elkar-teak (Andoain), Ostadar K.F. Mendiko Sailak (Lasarte-Oria) eta Super Amarak, Buruntzaldeko txoko eta udalerriak zeharkatzen dituzten bost ibilbidetatik barrena osteratxo egiteko gonbita luzatzen diete herritarrei.

Edizio honetarako proposatzen diren bost ibilbidetatik bi egiten dituenak gainera, poliesterrezko motxila bat jasoko du opari. Zehaztasun hauen eta gainerakoen berri joan den ostiralean eman zuten jakitera Buruntzaldeko



lau udaletako ordezkariak, Lasarte-Oriako Udaleko pleno aretoan burutu zuten agerraldian. Bosgarren edizio honetan, honako ibilbideok osatu ahal izango dira:

ANDOAIN-LASARTE

Koloreak: urdina, urre zaharra.

Luzera: 7,9 km.

Oharra: oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.

ANDOAIN-URNIETA

Koloreak: urdina eta berdea.

Luzera: 4,8 km.

Oharra: oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

ANDOAIN-USURBIL

Koloreak: berdea eta laranja.

Luzera: 14,9 km.

Oharra: soilik oinez egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.

LASARTE-URNIETA

Koloreak: urre zaharra eta berdea.

Luzera: 3,9 km.

Oharra: oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

LASARTE-USURBIL

Koloreak: urre zaharra eta laranja.

Luzera: 4,5 km (Santueneaino), 9 km (Aginagaraino).

Oharra: oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

KONTROL GUNEAK ETA MOKADUAK

Ibilbideetatik barrena osteratxo egin nahi duenak, kontuan izan dezala, udalerrri bakoitzean kontrol gune bat jarriko dutela, argibideak jaso eta mokadutxo bat dastatu nahi duten herritarrentzat. Kontrolguneok, lekuotan egongo dira:

Usurbilen: Santueneako Zorroztzeko zubi parean eta Aginagako Mapil baserri ondoan. Andoainen: udaletxe azpian. Lasarte-Orian: San Pedro eliza ondoko plazan. Urnietan: udaletxe azpian.

AUTOBUS ZERBITZUA

■ Ibilaldi amaieran, aurten ere bueltatzeko autobus zerbitzua jarri du antolakuntzak. Orduotan eta geltoki hauetatik igaroko da:

■ Aginagan (Ezpaldiko gasolindegian), ordutegi hauetan 12:00, 13:00, 14:00.

■ Usurbilen (San Inazio errotondan), ordutegi hauetan 12:05, 13:05, 14:05.

■ Lasarte-Orian (Dorretzeko errotondan), ordutegi hauetan 12:15, 13:15, 14:15.

■ Andoainen (Goiko Plaza atzealdean), ordutegi hauetan 12:30, 13:30, 14:30.

■ Urnietan (Kioskoko geltokian): 12:40, 13:40, 14:40.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, ordu-

ka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsaldean edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu. Badut esperientzia. 652712099.

BESTELAKOAK

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metallezko fundarekin (beltz koloreko). Norbaitek aurkitu baditu udaltzaingoa utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko nuke (675 703 276).

Haurrentzako Maxi-Cosi Cabrio-fix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 1307:657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Poxpolin mertzeria traspasatzen da. 636 462 210.

Kaffa inguruan betaurreko batzuk agertu dira. Gizonezkoenak, zilar koloreko montura dutenak. Galdu dituenak, optikatik pasa bila.

Hainbat produktu erabili gabekak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurri-

koak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Ingeleseaz hitz egin nahi, herri-rik mugitu gabe? Ingeleseko mintzapraktikarako taldea osatzen nabil. 670 382 999 (Unai).

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai prezio onean. 637 974 994 Itziar

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Akordeia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo urra eta patata erosi-ko nituzke. 634409888.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
KZgunea	943 570 999	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Popular Español	943 370 411
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	BBVA	943 377 155
Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Telefonica	1004
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak urriaren 11tik 21era

Osteguna 11 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Ostirala 12 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 13 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Asteartea 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 17 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 19 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Larunbata 20 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Igandea 21 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe.
Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Andoni Errazkin

Xukin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Agenda urria

11 osteguna

■ **Pilota partidak Zubietako frontoian.** Iluntzeko 21:00etan. Sarrera: 5 euro.

12 ostirala

■ **Euskal Jaia Zubietan.**
 ■ **Gazte mugimenduen asanblada.** 16:00etan Aitzaga elkartearen.
 ■ **San Praixku jaiak** (Ikus 9. orrialdea).

13 larunbata

■ **San Praixku jaiak** (Ikus 9. orrialdea).

Euskal Jaiak hartuko du Zubietan

Gonbidatu berezi batekin ospatuko da aurtengo Zubietako Euskal Jaia, ostiralean; Anje Duhalderen kantaldiaz gozatzeko aukera izango baita. Hauxe, Zubietan Lantzenek urriaren 12ko jaialdia borbiltzeko antolatu duen hitzordua. Bezperarako, Mikel eta Fernando Goñirekin pilota jaialdi ikusgarria antolatu dute.

URRIAK 11, OSTEGUNA

21:00 Pilota partidak Zubietako frontoian (Sarrerak: 5 eurotan, egunean bertan salgai):

-Joko-garbi: Aizpurua II-Aizpurua III - Rezola-Aizpurua I.

-Gurpildun aulkian, paleta: Aingeru Iñaki - Beñat-Patxi.

-Eskuz binaka: Xabi Santxo-Fernando Goñi - Mikel Goñi-Julen Urruzola.



Animalia erakusketa 12:00etan hasiko da.

URRIAK 12, OSTIRALA

11:30 Trikitilariak.

12:00 Animalia erakusketa eta astokarrera. Ondoren, hamaiketakoak.

14:00 Bazkaria Araeta jatetxean (txartelak salgai Barazarren, urriaren 8ra arte). Arratsaldean, kantu-jira.

22:00 Anje Duhalderen kantaldia.

Gazte mugimendu berriaren lehen asanblada

Irailaren 28an jendaurrean aurkeztu zen Euskal Herri mailako gazte mugimendu berria eratzten hasteko, lehen asanblada deitu zuten egunotarako. Urriaren 12an, arratsaldeko 16:00etan Aitzaga Elkartearen.

Sare sozialei buruzko ikastaroa KzGunean

Urriaren 16an hasi eta urriaren 24a bitarte luzatuko da "Sare sozialak 2.0" izeneko ikastaroa. 16:00etatik 18:00etara izango dira klaseak. Informazio gehiagorako: 943 023 684. Urriaren arratsaldez irekiko dute KzGunea (16:00-20:00).

Datozenak

"Izan bedi emakumea" antzezlanaren eskutik

Antzerkizale Sarea jarri du abian Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak (EHAZE), egiten diren lanei ibilbide bat emateko. Gilkitxaro, Bina-bina, Txirene, Kuku eta Koldarrak taldeen emanaldiekin osatu du irail eta urriko egitaraua. Koldarrak taldekoak Usurbilen izango dira, urriaren 26an ostirala, iluntzeko 20:00etan Sutegin; "Izan Bedi Emakumea" izeneko antzezlanaren eskutik.



"Izan bedi emakumea" antzezlanarekin etorriko dira Sutegira.

Behobia-Donostiarako autobusa antolatu da

Azaroaren 11n ospatuko den Behobia-Donostia probarako autobusa irtengo da Usurbildik. Izen emateko: 666 987 083. Prezioa, 10 euro.

izagirre
 ELEKTRIZITATEA
 943 36 50 95-609 06 81 11
 izagirreletrizitatea@hotmail.com
 Goiz argi etxea 37, KALEZAR

TAXI
 607 92 87 70
 943 00 44 83
 Angel (24h) USURBIL


Javier Orbegozo
 ·ITURGINTZA
 ·GASA ·BEROKUNTZA
 659 602 789
 943 37 29 37
 Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

ARRANDEGIA PELLO
 PUNTAPAX 7
 943 36 21 64
 USURBIL

Irailean eta Urrian...

...irabazi **EROSKETA-BALEAK** Hurbilagorekin!

IRAILEAN eta URRIAN zure erosketa Hurbilago txartelarekin ordainduta **5, 10, 20 eta 50 €**ko erosketa-baleak irabaz ditzakezu.



Hurbilago txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko tikean azalduko zaio bezero sarituari bere erosketa-saria. Erosketa-sariaren trukea, Hurbilagoko edozein establezimendutan egin ahal izango da eta egindako erosketa berri baten zenbatekotik deskontatuko da.

hurbilag
Hurbilago Merkataritza

Usurbil
Osasuna atez atez



Usurbilgo Udala



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERMATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACION, COMERCIO Y TURISMO



ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa,
noaua.com, Udajolas, Inauteri Jaia, Kulturaldia,
Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

noaua
euskararen aterpe



BAZKIDETZA

IZENA: _____ ABIZENAK: _____
JAIOTZE DATA: _____ JAIOTERRIA: _____
N.A.N ZENBAKIA: _____
HELBIDEA: _____ HERRIA: _____ POSTA KODEA: _____
ETXEKO TELEFONOA: _____ MUGIKORRA: _____
POSTA ELEKTRONIKOA: _____ K/K ZENBAKIA: _____

Usurbilgo Noaua! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaren helbideraketa (36€) baimentzen dut.

Sinadura:

Usurbilen,